

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



ASTIGARRAGA GURE IZARRA

Zaharrei omenaldia gaur, Txomiñenen

Omenaldia egingo diete gaur, 80 urtetik gorako astigartarrei, Gure Izarra elkarteak antolatuta. Aurrena, 09:30etan, Txirris-klakoen diana abiatuko da, eta txaranga gero. 12:45etan izango da ekitaldi nagusia, Txomiñene frontoian: meza, eta Aiztondo abesbatzaren eta Astigar dantza taldearen emanaldia. Gure Izarran borobilduko dute, bazkaria, opari banaketa eta Alberro anaien musikarekin. ||

EREÑOTZU ELIZA

Jaunartzeak gaur, San Antonio elizan

Gaur egingo dute aurreneko jaunartzea, Ereñotzuko bi haurrek. Goizeko 10:00etan izango da, San Antonio elizan. ||

HERNANI UDALA

Apeaderoko igogailua, zerbitzuz kanpo bihar eta etzi

Zerbitzuz kanpo egongo da Renfeko apeaderoko igogailua, datozen bi egunetan: bihar, 09:00etatik 18:00etara; eta etzi, 08:00etatik 18:00etara. Izan ere, hobekuntza lanak egingo dituzte, irisgarritasuna bermatzeko. ||

HERNANI HERRIGUNEA

Jantoki beganoa, gaur iluntzean

Jantoki beganoa jarriko dute gaur iluntzean, Urumea Herrigunean. Haurrentzako gunea eta jantokia, 19:30etatik aurrera egongo da zabalik; eta gero, 20:30etan hasiko dira afariak ematen, 21:30ak arte. ||

HERNANI ARRANTZA

Txapelketa gaur, Urumea ibaian

Txantxangorri elkarteak antolatuta, Amuarrain Arrantza Txapelketa jokatu dute gaur, Urumea ibaian. 08:00etan elkartuko dira, Txantxangorri; eta bertatik probaren eremura joango dira. 09:00etatik 13:00etara izango da txapelketa. ||

HERNANI MUSIKA

Olano Fondoaren aurkezpena, gaur

Udaletxeko areto nagusian jarri du zita, Izura kultura elkarteak, Jesus Mari Olano Fondoa aurkezteko, Olanoren heriotzaren urteurrenean. Eguerdiko 13:00etan egingo dute ekitaldia.

BILDUMA zabal bat aurkezteko jarri du hitzordua gaur, Izura kultura elkarteak: Jesus Mari Olano Fondoa emango dute ezagutzera, Hernaniko udaletxeko areto nagusian, eguerdiko 13:00etan hasita.

«Bilduma honek gorde ditu,

60ko eta 70eko hamarkadetan gure herrian euskera eta kulturaren alorrean sustatu eta antolatutako hainbat ekitaldiaren inguruko dokumentazioa eta soinu-erregistro nabarmenak», jakinarazi dute. Horien artean daude, besteak beste,

Ez Dok Amairuren sorrerako emanaldia, edota Gabriel Arestiren hitzaldi historikoa. «Hernanin entzundako herri bizitzaren musika eta hotsak», azken batean.

Altxor horren zati bat, Jesus Mari Olanok eman zion Joxan

Goikoetxeari, eta horregatik aurkeztuko dute gaur, Olano hil zela urtebete beteko den egunean, hain justu. Zuzeneko musika, eta bildumaren irudi eta grabaketak tartekatuko dituzte ekitaldian. Ordubeteko iraupena izango du. ||

GOIZUETA MENDI LASTERKETA

Olano eta Uribe txapeldun, Goizutrailen

Iñaki Olano altzotarra eta Rosa Uribe usurbildarra nagusitu ziren, Goizutraileko 25 kilometrokoan; Hodei Lujanbio goizuetarra, zazpigarren. Proba motzean, Aritz Mujika eta Ane Elzaurdia garaile.

EGURALDIA lagun, giro ederrean ospatu zuten atzo, Goizutrail mendiko lasterketa. Guztira, 210 lagunek hartu zuten parte, hiru modalitate ezberdinetan: 25 kilometroko proba nagusia, 10 kilometroko laburra, eta bikotekakoa, bien artean 25eko ibilbidea osatuz.

Eta ibilbide luzean, Iñaki Olano altzotarra eta Rosa Uribe usurbildarra nagusitu ziren. Olanok (2:10:25), aurrea hartu zien Xabat Manzisidor azpeitiarrari (2:12:09) eta Xuban Ezeiza urnietarrari (2:14:56). Ez zen urrutibili, Hodei Lujanbio goizuetarra ere: zazpigarren helmugaratu zen (2:19:06). Uribek (2:51:01), berriz, alde handiagoarekin irabazi zuen, Iratxe Alonso elgetarraren (3:17:23) eta Nerea Arriaga oriotarraren (3:24:29) aurretik.

Ibilbide laburrean, berriz, Aritz Mujika andoaindarrak eta Ane Elzaurdia beratarra izan ziren nagusi. Narbarteko Jokin Arretxea eta Hondarribiak



Atzoko Goizutrailleko saritu gehienak, podiumera igota. Argazkia: Goizutrail

Nacho Lopez izan zituen lagun Mujikak, podiumean; eta Almodena Carvajal hernaniarra eta Leticia Ainhua Arrillaga donostiarra, Elzaurdiak. Zigor Sagardui eta Maialen Apezetxea izan ziren, goizuetar onenak.

15 bikote, proba berrian Binakako proba zen aurtengo nobedadea, eta 15 bikotek hartu zuten parte: batek ibilbide laburra osatu, herrian erreleboa eman, eta besteak gainerrako 15 kilometroak. Horrela,

Jon Labaka urnietarra eta Mikel Leal irundarra izan ziren probako azkarrenak.

Hiru probetako sailkapen osoa, etziko Kronikan izango da ikusgai; maiatzaren 21ean, hain zuzen ere. ||

ARALAR TABERNA

GIRO EDERRA ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
943 33 15 06

XXXV. MUS TXAPELKETA

MAIATZAK astelehena 13

BITTOR - POPIN / JONAN - ZURU
BORJA - MIKEL / PETTO - MAÑEL
AIATZ - EKHI / ANDER - JULEN
ROBERTO - JAVI / URKO - KEPA

MAIATZAK asteartea 14

TXEMA - PLATANITO / JOXE RAMON - PACO
MONROY - JOKIN / FELIX - TOMAS
BELOKI - ANDRES / JULIO - MANTXA
JOXE LUIS - JON / ANDONI - JUANMA

MAIATZAK asteazkena 15

TXEMA - MAGGI / JULEN - UGAITZ
NICO - PASTE / XABI - IÑAKI
KANO - JOXIAN / XARPA - MITXELENA
YANYO - AITOR / ARNAITZ - OIER

MAIATZAK osteguna 16

MIKEL - IÑAKI / FELIX - JAVI
AGURTZANE - ANDER / MATHIUS - ANER
CARLOS - JAVI / GORKA - MATILLA

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerarioorbegozo.com

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA



GAUR Goiza aurrera joan ahala, laino guztiak desegingo dira, eta eguerdi partean eta arratsaldean eguzkitsua egongo da. Ipar-ekialdeko haize frexkoa ibiliko da arratsaldean, baina tenperatura maximoak gradu pare bat igoko dira: **Min.9° / Max.18°**



BIHAR Giru eguzkitsua izango dugu bihar ere. Zerua laino gutxirekin egongo da, goi-laino batzuekin bakarrak. Ipar-ekialdeko haizea ibiliko da, eta tenperatura ez da gehigi igoko. Goizean goiz egongo du frexko, bereziki. **Min.8° / Max.19°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI BERTINTASUN KONTSEILUA

Aimar Elozegi Ansa oroitzeko, trans-zikloa datorren astean

Kattalin Minerrek 'Moio: Gordetzea ezinezkoa zen' liburua aurkeztuko du asteazkenean, Biterin; eta trans bertso-saioa izango da ostiralean.

BI ekitaldi berezi antolatuta ditu datorren astean, trans-zikloa deitu duenaren barruan, Hernaniko Bertintasun Kontseiluak. Aimar Elozegi Ansa oroitzeko izango dira biak: «orain 12 urte egin zuen bere buruaz beste, Aimar transexual gazteak. Herritar askok gogoratzen dugu gertaera hura, herrian oso entzutetsua eta gogorra izan baitzen, eta transexualitatearen gaia mahai gainean jarri baitzen», azaldu dute.

Kontseiluak nabarmendu du, urte haietan «hainbat ekimen eta ekitaldi» egin zirela, «Aimar oroitu eta transexualitatearen gaia lantzeko. Azken urteotan, aldiz, ez da horrela-

Tilosetan izango da trans bertso-saioa, ostiralean, Lujanbio, Pagola, Gaztelumendi, Artetxe, Ibarzabal eta Urteagarekin.

korik izan». Horregatik, Kattalin Minerrek *Moio: Gordetzea ezinezkoa zen* liburua idatzi duela aitzakia hartuta, berriro plazaratu nahi izan dute gaia, «eta Aimarrekin hasitako bidearekin jarraitu, gorde ezina delako, herritarren transmisioan eragin dezagun».

Horrela, liburuaren aur-

kezpena izango da, aurreneko ekintza. Asteazkenean aurkeztuko dute, Minerrek berak eta Danele Sarriugarte idazleak. Arratsaldeko 19:30etan izango da, Biteri kultur etxean.

Trans bertso-saioa ostiralean, Tilosetan

Bigarren zita, berriz, izango da trans bertso-saioa deitu dutena. Ostiralean egingo dute hori, 19:00etan Tilosetan; euria egin ez gero, Sandiusterrin. Sei bertsolari ariko dira taula gainean: Maialen Lujanbio, Eli Pagola, Beñat Gaztelumendi, Miren Artetxe, Nerea Ibarzabal eta German Urteaga. Amaia Agirre ariko da gai-jartzaile. ||

HERNANI BERRIAK ELKARTEA

Deskontu txartelak eta poltsak opari, datorren asteke erosketekin

'On Egin!' kanpaina jarri du martxan berriro, maiatzaren 13tik 19ra, Berriak elkarteak. Hernaniko 16 dendatan emango dituzte boletoak.

BERRIRO jarri du martxan *On Egin!* kanpaina, Berriak Hernaniko Merkataria eta Ostalarien Elkarteak. Datorren astean izango da, maiatzaren 13tik 19ra bitartean; eta elkarteke 16 dendatan, boletoak banatuko dizkiete bezeroei, erosketak egiterakoan. Boleto horietan, hainbat opari lortzeko aukera izango dute: erosketa poltsak, eta 2 euro, 3 euro edo 5 euroko deskontu txartelak, denda ho-

rretan bertan erabiltzeko, hurrengo erosketetan, maiatzaren 26ra arte, gehienez ere.

Hauek dira, kanpaina parte hartu duten 16 dendak: Antziola Okindegia, Antziola Kafetegia, Dorronsoro, Bikain, Adarraga, Lekuona, Dietetika Orenkan, Masusta, Goxo, Gardanbera, Jaione Konjelatuak, Marioscos Hernani, Iñaki Harategia, Artola Harategia, Amaia Arraindegia eta Mari Fe.

Jose Ignacio Escudero eta Ainhoa Iruretagoienak, 500 euroko txartel bana

Aurreko kanpainaren zozketa ere egin du Berriak elkarteak, eta dagoeneko jakinarazi du, zeinentzat diren 500 euroko bi erosketa txartelak: Jose Ignacio Escudero Legarretarentzat bat, eta Ainhoa Iruretagoiena Ramarentzat bestea.

Hiru hilabeteko epea daukate, txartelak erabiltzeko. ||

HERNANI SASKIBALOIA

Igoeraren lehia gaur Hernanik, kiroldegian

Finala jokatu du junior mutilen talde batek, 12:00etan, Mondragon Unibertsitatearen kontra.

ATZO jokatu zituzten igoerako Final Fourreko semifinalak, Hernaniko mutil juniorren bi taldeek; eta horietako batek, helduenenak, finalera sailkatzea lortu zuen, Aloña Mendiri 54-43 irabazita. Gaur jokatu du finala, Mondragon Uni-

bertsitatearen kontra; Hernaniko kiroldegian, 12:00etan.

Hain justu, Hernani Txiki taldeari irabazi zioten haiek (67-79), beste semifinala; eta beraz, hernaniarrek hirugarren posturako lehia jokatu dute, 10:00etan kiroldegian. ||

ASTIGARRAGA ZAMALBIDE-BENTAK

Larunbateko afarirako txartelak, gaur arte

Zamalbide eta Bentetako San Isidro jaietan, afari herrikoia egingo dute datorren larunbatean, maiatzaren 18an. 20:30etan izango da, Auzolan elkarteak, eta bertan afaltzeko, gaur da erreserbak egiteko azkeneko eguna: 637 781 772 (Igor) edo 656 765 482 (Iker). ||

HERNANI UDALA

Tokiko Gobernu Batzordeak, bilera bihar

Bihar bilduko da, 09:00etan alkatetzan, Hernaniko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordea. Hamabi gai daukate lantzeko; tartean, auzo elkartearen dirulaguntzak, edota 2019ko Asfaltatze Plana. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

FABIAN DE ARRIBA VAQUERO
(Itzasne De Arribaren aita)
Besarkada bat familiari

MANDAZUBI GURASO ELKARTEA
Hernanin, 2019ko maiatzaren 12an

IRAGARKI MERKEAK

Errioxako Alesanko herrian apartamentu bat salgai: 2 logela, sukalde-egongela eta komuna, dena kanpoaldean eta altzariekin. Deitu: 676 402 750

Pisua salgai Hernaniko erdigunean; 2 gela, sukaldea, sala eta komuna. Egoera onean. Deitu: 628 116 949

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

HARATZAGO

IBILALDIA LEKEITIO 2019

Gurekin autobusez, Hernanitik HARATZAGO Lekeitiora!

Eguna: Maiatzak 19
Izena emateko azken eguna: maiatzaren 16a
Prezioa: Bazkideak 10€
Gainerakoak 12€

Irteteko Atsegindegian 09:00etan
Itzultzeko Lekeition 19:00etan
Larramendi 11, behea - HERNANI
943 33 27 99 - dobera@dobera.eus